



Barakaldoko Euskara Udal Erakunde Autonomoan sor daitezkeen beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko Oposaketa-Lehiaketa arautuko duten oinarriak

Bases reguladoras del Concurso-Oposición para la creación de una bolsa de trabajo de Profesoras y Profesores que cubra las necesidades que surjan dentro del Organismo Autónomo Barakaldoko Euskara Udal Erakundea

Lehenengoa.— Deialdiaren xedea. Primera.—Objeto de la Convocatoria.

1.1 Deialdi honen helburua Oposaketa-Lehiaketaren bidez Lan Poltsa bat osatzea da, hurrengo beharrei erantzuteko balioko duena:

a) Irakasleak kontratatzea Barakaldoko Udal Euskaltegian eskolak emateko, behin-behineko ikasle-hazkundera dela-eta.

b) Gaur egungo irakasle titularren hutsuneak betetzea gaixotasun-baja edo bestelakoengatik lanera etorri ezinean gertatzen direnean.

c) Barakaldoko Euskara Udal Erakunde Autonomoan, etorkizun batean, burutuko diren programa berezietarako pertsonala kontratatzea.

1.2. 2014ko urtarrilaren 16an onartutako 384 Dekretuari jarraiki, zeinetan Barakaldoko Udalaren lan-poltsaren eraketa eta kudeaketa burutzeko araudia jasotzen den, hautaketa-prozesu hau gainditzeko duten izangai guztiez hornituko da aipatutako kategoriarako lan-poltsa.

1.3. Kasu guztietan behin-behineko tasunak izango dituzten kontratuak bertan behera geratuko dira, Barakaldoko Euskara Udal Erakunde Autonomoak irizten duenean hautagaia kontratatzeke arrazoiak ez dirauela luzeagorik eta ez dagoela kontratazioan gertatu zen urgentziatzeko arrazoirik.

1.1. Es objeto de la presente convocatoria la constitución de una Bolsa de Trabajo, mediante el sistema de Concurso-Oposición, para cubrir las siguientes necesidades:

a) Contratar personal docente para impartir clases de euskera en el Euskaltegi Municipal de Barakaldo, con el objeto de cubrir la demanda temporal y excedentaria de alumnado.

b) Cubrir las vacantes de las personas docentes en el Organismo en situación de incapacidad laboral o baja.

c) Contratar personal para los programas especiales que en un futuro se llevaran a cabo en el Organismo Autónomo Barakaldoko Euskara Udal Erakunde.

1.2. De conformidad con lo dispuesto en la normativa aprobada para la constitución y gestión de las bolsas de trabajo del Ayuntamiento de Barakaldo, aprobada por Decreto nº 384 de 16 de enero de 2014, la lista de personas que superen el presente proceso selectivo pasarán a formar parte de la bolsa de trabajo en la categoría mencionada.

1.3. Las contrataciones que, en cualquier caso, tendrán carácter temporal, quedarán revocados cuando el Organismo Barakaldoko Euskara Udal Erakunde considere que ya no existen las razones de urgencia que han dado lugar a la contratación.

Bigarrena.— Kontratazioa.

2.1. Pertsona aukeratuekin izenpetuko den kontratua Barakaldoko Euskara Udal Erakunde Autonomoaren beharren arabera izango da. Lanaldia zerbitzuaren beharrezan arabera zehaztuko da, eta burutuko den lana lanaldi osoa edo partzialekoa izango da.

Talde-sailkapen asimilatua: A2
Ordain sari maila: 20

Segunda.—Contratación.

2.1. El contrato que se firme con las personas que resulten seleccionadas se ajustará a las necesidades del Organismo Autónomo. La jornada laboral se establecerá en función de las necesidades del servicio, siendo el trabajo desarrollado a tiempo completo o parcial.

Grupo de clasificación asimilado : A2
Nivel retributivo : 20

Hirugarrena.— Izangaiek bete beharreko baldintzak

3.1. Ondorengoak bete beharko dira eskaria onartua izateko eta, hala balegokio, Oposaketa-Lehiaketan parte hartu ahal izateko:

a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo Nazioarteko Itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzeko eremuaren barruan sartzen den herrialdeetakoren batekoa izatea.

Europar Batasuneko kideen ezkontideak ere hartu ahal izango du parte, izatez bananduta ez badago; baita euren seme-alabek edo euren ezkontidearen seme-alabek ere, betiere, ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude. Seme-alabok hogeita bat urte baino gazteagoak edo zaharragoak izan daitezke, baldin eta gurasoen lepotik bizi badira.

Tercera.—Condiciones de los aspirantes

3.1. Para ser admitida la solicitud, y en su caso, tomar parte en el Concurso-Oposición serán requisitos necesarios:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales le sea de aplicación la libre circulación de los trabajadores.

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de hecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean éstos descendientes menores de veintiún años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

Aurreko paragrafoetan ageri ez eta Espainiar Estatuan bizi diren atzerritarrek ere hartu ahalko dute parte. Aukeratuak izango balira, kontratua sinatu baino lehen, dagokion administrazioaren baimena dutela egiaztatu beharko lukete.

b) 16 urte izatea.

c) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea galarazten duen gaixotasun eta akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

d) Diziplina-espedita bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bazterturik ez egotea edota egiteko publikoetan aritzeko ezgaiturik ez egotea.

e) Euskaraz, Administrazio 3. edo 4. Hizkuntza-Eskakizuna edo parekidea izatea. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskaraz maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ikasketen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

f) Era berean, Unibertsitate-diploma, lizentzia, gradua edota irakasle-eskolako titulazioa izan beharko du. Edozelan ere, onartzekoak izango dira HABE Udal Euskaltegietako irakasleak homologatzeko egin zituen probak gainditu zituzten irakaslegaiak, 1984ko ekainaren 8ko Aginduan ezarritakoa betez.

Así mismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. Si resultaran seleccionadas, deberán acreditar la posesión de la autorización administrativa para realizar la actividad objeto del contrato con carácter previo a la formulación de éste.

b) Tener cumplidos 16 años de edad.

c) No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto.

d) No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de las funciones públicas.

e) Estar en posesión del Perfil Lingüístico 3 o 4 de la Administración o título equivalente. Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas, deberán aportar la certificación académica correspondiente.

f) Así mismo, deberá ser diplomado/a universitario/a, licenciado/a, graduado/a o estar en posesión del título de magisterio. En todo caso, será admisible quien es su día hubiera superado las pruebas de homologación convocadas por HABE para profesorado de los euskaltegis públicos, tal y como se recoge en la Orden del 8 de junio de 1984.

3.2. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira betekizun horiek guztiak eta beharrezkoa izango da betekizun horiei guztiei eustea hautaketa-prozesuan zehar.

Laugarrena.— Eskabide-orrien aurkeztea.

4.1. Hautapen-prozesuan parte hartzeko eskaeretan hautagaiek deialdiaren Hirugarren Oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskaerak Erakunde Autonomoaren Lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Barakaldoko Udalaren Erregistro Nagusian edo Udal Euskaltegiaren Idazkaritzan. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. atalean (2015-10-02ko BOE) aipatzen direnetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Deialdiari dagokion iragarkia Udaleko web-orrian, Udal Euskaltegiko Iragarki Taulan eta, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko hedadura handiko egunkari batean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira eskabideak.

4.2. Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- NANaren fotokopia.
- Eskatutako euskara-mailaren ziurtagiriaren eta titulazio akademikoaren kopia.
- Deialdi honetan baloratzen diren merituen egiaztagirien kopiak.

3.2. Todos los requisitos anteriores deberán poseerse el día en que finalice el plazo de presentación de instancias y mantenerse durante el procedimiento de selección.

Cuarta.— Presentación de instancias.

4.1. Las instancias solicitando ser admitido/a en el proceso selectivo, en las que las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Tercera de la convocatoria, se dirigirán a la Presidenta del Organismo Autónomo y se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Barakaldo o en la secretaría del Euskaltegi Municipal a través de cualesquiera de los medios establecidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (BOE de 02-10-2015), en el plazo de 10 días hábiles a contar a partir del siguiente a que aparezca inserto el correspondiente anuncio en el Tablón de Anuncios del Euskaltegi, la página web del Ayuntamiento y en, al menos, un diario de los de mayor difusión en el Territorio Histórico de Bizkaia.

4.2. Además, adjuntará a la instancia la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I.
- Copia de la titulación académica requerida y de la acreditación de euskara.
- Copias de las acreditaciones de méritos valorados en la presente convocatoria

4.3. Hautapen-prozesu honetan eskaera aurkezteak esan nahi du hautagaiak baimena ematen dutela ezinbestean egin beharko diren argitalpenetan Udaleko web-orrian zein Udal Euskaltegiko Iragarki taulan identifikatzeko (onartu eta baztertuen zerrendak, proben emaitzak, deialdiaren behin betiko ebazpena). Identifikazio hau, halere, datuen babesari buruzko legediak xedatzen duen guztia aintzat hartuta egingo da.

4.4. Hautaketa-prozesua publizitate-printzipioari jarraiki burutuko da. Ez da, horrenbestez, onartuko bere datuak, arestian aipatutako kasuetarako, erabiltzeko baimenik ematen ez duen izangairik. Datuok aldatu, zuzendu edota beren erabilera eragozteko, deialdi hau burutuko duen organora jo beharko da.

Bosgarrena.— Hautagaien onarpena. Deialdiak eta jakinarazpenak.

5.1. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaituta, gehienez ere hil beteko epean, Barakaldoko Euskara Udal Erakunde Autonomoak onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Udaleko web-orrian zein Udal Euskaltegiko Iragarki Taulan. Zerrenda horretan, hala denean, hautagaiak ez onartzeko arrazoia azalduko da.

5.2. Onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute baztertzea eragin duten akatsak edo hutsak

4.3. La participación de las personas aspirantes en el proceso selectivo implicará automáticamente su autorización a que se les identifique en las publicaciones preceptivas (relación de personas admitidas y excluidas, anuncios en el Tablón y la página web municipal de los resultados de las pruebas y resolución final del proceso selectivo), a los efectos de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

4.4. Los procesos selectivos están regidos por el principio de publicidad, por lo que no se admitirá la solicitud de la persona aspirante, si ésta no consiente en la cesión de sus datos. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación y oposición, pueden dirigirse al órgano convocante.

Quinta.—Admisión de los aspirantes. Convocatorias y notificaciones.

5.1. Finalizado el plazo de presentación de instancias, en un plazo máximo de un mes, el Organismo Autónomo Barakaldoko Euskara Udal Erakunde publicará en la página web del Ayuntamiento de Barakaldo y en el Tablón de Anuncios del Euskaltegi Municipal la relación provisional de admitidos/as y excluidos/as. En dicha relación figurará, en su caso la causa de la no admisión de los aspirantes.

5.2. A partir del día siguiente a la publicación de la aprobación provisional de la relación de persona aspirantes admitidas y excluidas, las personas interesadas dispondrán de un periodo de 10 días hábiles para la subsanación de defectos y omisiones que

zuzentzeko, baita zerrendaren aurka egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko ere.

5.3. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da. Erreklamazioak egonez gero, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onartu edo gaitzetsiko dira. Zerrenda hori arestian adierazitako moduan argitaratuko da.

5.4. Baztertzea eragin duten akatsak edo hutsak zuzendu ez dituztenek eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

5.5. Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendan adieraziko da, halaber, lehenengo azterketa zein datatan egingo den eta Epaimahaiaren esleipena ere (Epaimahaia osatuko duten kideen izenezko zerrenda —titularrak zein ordezkioak—).

Seigarrena.— Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Kalifikazio-epaimahaia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua xedatzen duenaren arabera eratuko da.

6.2. Kalifikazio epaimahaia presidente batek, idazkari batek eta zehazten diren bokalek osatuko dute. Epaimahaikideek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, ez baitu azken eskumen hori. Epaimahaiaren erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da bertan daudenen botoen gehiengoa. Berdinketa-kasuan, berriz, presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du.

hubieran motivado la exclusión, así como plantear cualesquiera otras reclamaciones que consideren oportunas contra la lista.

5.3 La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva, si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiera, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva que se hará pública de la misma forma que la anterior.

5.4. A quienes no hubieran subsanado los motivos de la exclusión se les tendrá por desistidos en su instancia.

5.5. En la lista definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas, además, se incluirá la fecha de celebración del primer examen y la designación del Tribunal Calificador, con la relación nominal de sus componentes, así como de sus suplentes.

Sexta.— Tribunal Calificador.

6.1. El Tribunal calificador de las pruebas selectivas se constituirá de conformidad con lo dispuesto en el art. 60 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del empleado Público.

6.2. El Tribunal calificador contará con un/a Presidente/a, un Secretario/a y las y los vocales que se determinen. Los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, con excepción del Secretario/a del mismo, que carecerá de esta última cualidad. Las decisiones del Tribunal se adoptarán por mayoría de los votos presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto de calidad del/ de la Presidente/a.

6.3. Epaimahaiko kideek ezin izango dute esku hartu eta Erakunde Autonomoaren Lehendakariari jakinaraziko diote. Era berean, hautagaiek errekusatu ahal izango dituzte 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen direnean, lege testu bereko 24. artikuluan zehazten diren modu eta kasuetan.

6.4. Epaimahaia ezin izango da osatu, ezta aritu ere, berau osatzen duten kideen erdia baino gehiago bertaratu ezean, kide hauek titularrak zein ordezkioak izan.

6.5. Hautatze-probaren edozein unetan Epaimahaiak jakingo balu hautagairen batek deialdian ezarritako betekizunetakoren bat betetzen ez duela, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, lehiakideak egindako okerren bat nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde zuzenetik interesatuari entzun ondoren.

6.6. Herri-Administrazioen Administrazio-Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 b) artikularekin bat etorritik, akordioak, deialdiak, azterketarako deia eta hautaketa prozesuko beste edozein komunikazio-ekintza egiteko tokia Barakaldoko Udal Euskaltegi Iragarki taula eta Udaleko webgunea izango dira. Argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezkio izango dira eta ondorio berak izango dituzte.

6.7. Epaimahaiak oinarri hauek sorrarazten duten zalantza oro argitzeko ahalmena izango du; halaber, Legeari jarraiki, oinarri hauetan azaltzen ez den oro ebatzi eta

6.3. Los miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Presidencia del Organismo Autónomo. Las personas aspirantes podrán recusarles cuando concurren las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público en la forma y casos que se determinan en el artículo 24 del mismo.

6.4. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de los miembros titulares o suplentes indistintamente.

6.5. En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tuviere conocimiento de que alguna de las personas aspirantes no cumple uno o varios de los requisitos exigidos por la presente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada, deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando la inexactitudes o falsedades formuladas por las personas aspirantes en la solicitud.

6.6. De conformidad con el artículo 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y de las Administraciones Públicas, el lugar oficial de publicación de los acuerdos, llamamientos, convocatoria a examen y cualquier otro acto de comunicación dentro del proceso selectivo será el Tablón de Anuncios del Euskaltegi Municipal de Barakaldo y la página web municipal del Ayuntamiento de Barakaldo, sustituyendo a la notificación y surtiendo sus mismos efectos.

6.7. El Tribunal estará facultado para resolver cualesquiera dudas que suscite la interpretación de estas Bases, así como para resolver, conforme a Derecho, en lo no

hautapen proben garapen egokia bermatzeko beharrezko jotzen dituen neurriak ere hartu ahal izango ditu.

dispuesto en ellas y adoptar los acuerdos precisos para garantizar el buen orden en el desarrollo de las pruebas selectivas.

Zazpigarrena.— Hautaketa-prozesua.

Séptima.— Procedimiento de Selección.

LEHIAKETA-FASEA

FASE DE CONCURSO

Epaimahaiak, lehiaketa aldi honetan, ondorengo meritua baloratuko ditu, baldin eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera eskabidean aipatuak izan badira, eta jatorrizko dokumentuen edota kopien bidez egiaztatu badituzte izangaiek:

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados en la instancia de acuerdo con lo establecido en estas Bases y acreditados mediante la aportación de documentos originales o copias:

Izangaiek euren eskabidean zerrendatutako meritua egiaztatu beharko dituzte. Puntuazioa hurrengo hau izango da:

Los/as aspirantes deberán acreditar los merecimientos que han hecho constar en su solicitud. La puntuación será la siguiente:

7.1. Irakaskuntzan izandako eskarmentua. (gehenez 5 puntu).

7.1. Experiencia docente. (máximo 5 puntos).

- a) Aurrez aurreko ikastereduan (Zentro publikoetan):
0,2 puntu HABEk homologatutako euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan emandako 100 eskola-orduko.
- b) Autoikaskuntzan izandako eskarmentua —BOGA— (Zentro publikoetan):
0,5 puntu HABEk homologatutako euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan, autoikaskuntzan —BOGA— emandako 100 eskola-orduko.
- c) Jardun Biko ereduan izandako eskarmentua (Zentro publikoetan):
0,5 puntu HABEk homologatutako euskaltegi publikoetan irakasle-lanetan,

- a) Docencia en modelo de clases presenciales. (Centros públicos):
0,2 puntos por cada 100 horas lectivas de trabajo como profesor/a en euskaltegis públicos homologados por HABE.
- b) Docencia en el modelo de autoaprendizaje —BOGA— (Centros públicos):
0,5 puntos por cada 100 horas lectivas en el modelo de enseñanza de autoaprendizaje —BOGA— como profesor/a en euskaltegis públicos homologados por HABE.
- c) Docencia en el modelo de enseñanza mixta (Centros públicos):
0,5 puntos por cada 100 horas lectivas en el modelo de enseñanza mixta como

- jardun biko ereduan, emandako 100 eskola-orduko.
- d) Aurrez aurreko ikastereduan (Zentro homologatu edo libreetan):
0,1 puntu HABEk homologatutako euskaltegi pribatu edo libreetan irakasle-lanetan emandako 100 eskola-orduko.
- e) Autoikaskuntzan izandako eskarmentua —BOGA— (Zentro homologatu edo libreetan):
0,25 puntu HABEk homologatutako euskaltegi pribatu edo libreetan irakasle-lanetan, autoikaskuntzan —BOGA— emandako 100 eskola-orduko.
- f) Jardun Biko ereduan izandako eskarmentua (Zentro homologatu edo libreetan):
0,25 puntu HABEk homologatutako euskaltegi pribatu edo libreetan irakasle-lanetan, jardun biko ereduan, emandako 100 eskola-orduko.
- Aurkeztutako dokumentazioaren bidez ordu gutxiago egiaztatzen badira, ordu horiek modu proportzionalen hartuko dira kontuan.
 - Eskarmentua HABEren Lurralde Ordezkaritzaren batek egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Autoikaskuntzan edo jardun biko ereduan izandako eskarmentua egiaztatzeko, nahitaezkoa izango da jardun hori burutu den zentroaren zuzendaritzak egiaztatzea agiri baten bidez. Izangaiak ez badu zehazten zer irakaskuntza-motatan jardun duen, eskarmentua aurrez aurreko eskoletan izan duela ulertuko da.
- profesor/a en euskaltegis públicos homologados por HABE.
- d) Docencia en el modelo de clases presenciales. (Centros homologados o libres):
0,1 puntos por cada 100 horas lectivas de trabajo como profesor/a en euskaltegis privados o libres homologados por HABE.
- e) Docencia en el modelo de autoaprendizaje – BOGA (Centros homologados o libres):
0,25 puntos por cada 100 horas lectivas en el modelo de enseñanza como profesor/a en euskaltegis privados o libres homologados por HABE.
- f) Docencia en el modelo de enseñanza mixta (Centros homologados o libres):
0,25 puntos por cada 100 horas lectivas en el modelo de enseñanza como profesor/a en euskaltegis privados o libres homologados por HABE.
- Si la cantidad de horas de la documentación presentada fuera menor que las mencionadas, se baremarán proporcionalmente.
 - La experiencia se acreditará mediante certificaciones expedidas por alguna de las Inspecciones Territoriales de HABE. Para la acreditación de docencia en el módulo mixto o autoaprendizaje-BOGA, será necesaria la acreditación de la dirección del centro en la que se impartió esa docencia. Si el/la aspirante no especifica en qué tipo de modelo ha ejercido su docencia, se entenderá que esta se ha ejercido en el modelo de clases presenciales.

7.2. Titulu akademikoak (gehienez 4 puntu).

- a) 3 puntu Pedagogia, Psikopedagogia edo Euskal Filologian lizentziatua edo graduatua izateagatik.
- b) 2 puntu Irakasle-Eskolan, Euskal Filologia adarrean, lortutako agiriagatik.
- c) 2 puntu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean graduondoko memoriagatik.
- d) 3 puntu Pedagogia, Psikopedagogia edo Euskal Filologian doktorea izateagatik.

7.3. Euskara-eskolak ematearekin zuzenean lotutako glotodidaktika, euskalduntze edota alfabetatzeari buruzko argitalpenak (gehienez 3 puntu).

- a) 0,4 puntu 10 orrialdera arteko luzerako artikulua bakoitzeko.
- b) Puntu 1 HABEk argitaratutako ikastunitate bakoitzeko.
- c) Puntu 1 liburu edo aldizkari monografiko bakoitzeko.

7.4. HABEren, HAEEn edo Hezkuntza Sailaren —EGA— deialdietan aztertzaile- edo tutore- lanak (gehienez 2 puntu).

- a) 0.2 puntu deialdiko, aipatutako edozein erakundetarako azter-tzaile-lanetan ibiltzeagatik.
- b) 0.3 puntu deialdiko, aipatutako edozein erakundetarako tutore-lanetan ibiltzeagatik.

7.5. Hemen aipatu ez, baina helduei euskara irakastearekin zuzen lotutako zerikusia duten beste merezimendu batzuk (gehienez 3 puntu).

Erakunde publikoetan eta unibertsitateetan

7.2. Títulos académicos (máximo 4 puntos).

- a) 3 puntos por la licenciatura o grado de Pedagogía, Psicopedagogía o Filología Vasca.
- b) 2 puntos por el diploma de Magisterio en la rama de Filología Vasca.
- c) 2 puntos por la memoria postgrado en el campo de la alfabetización y euskaldunización de adultos/as.
- d) 3 puntos por el doctorado en Filología Vasca, Pedagogía y Psicopedagogía.

7.3. Publicaciones de glotodidáctica, euskaldunización y alfabetización directamente relacionadas con la impartición de clases de euskera (máximo 3 puntos) .

- a) 0,4 puntos por cada artículo de hasta 10 páginas de extensión.
- b) 1 punto por cada unidad de estudio de HABE publicada.
- c) 1 punto por cada libro o revista monográfica.

7.4. Participación como examinador o tutor en las convocatorias de HABE, IVAP o Departamento de Educación —EGA— (máximo 2 puntos).

- a) 0.2 puntos por cada convocatoria acreditada en cualquiera de las entidades en calidad de examinador.
- b) 0.3 puntos por cada convocatoria acreditada en cualquiera de las entidades en calidad de tutor.

7.5. Otros merecimientos relacionados con la enseñanza del euskera a adultos/as no especificados en los anteriores apartados (máximo 3 puntos).

Cursos realizados en instituciones o

hartutako ikastaroak (HABE, EHU, UNED, UVV, HAEE...)

- a) 10-20 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,2 puntu.
- b) 20-50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,4 puntu.
- c) 50 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 0,6 puntu.
- d) Orduak zehaztu gabeko ikastaro bakoitzeko: 0,1 puntu.

Erakunde publikoetan eta unibertsitateetan emandako ikastaroak (HABE, EHU, UNED, UVV, HAEE...)

- a) 10-20 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,4 puntu.
- b) 20-50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,8 puntu.
- c) 50 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: puntu 1,2.
- d) Orduak zehaztu gabeko ikastaro bakoitzeko: 0,2 puntu.

Bestelako agiriak:

- a) HABEren C2rako gaikuntza agiria izateagatik: 3 puntu.
- b) EHUren bizkaiera-agiria izateagatik: 0,2 puntu.
- c) Labayru ikastegiaren 5. maila izateagatik: 0,2 puntu
- d) Labayru ikastegiaren 4. maila izateagatik: 0.1 puntu
- e) EHUren edota beste unibertsitateen hizkuntzalaritza eta itzulpengintza masterra izateagatik: 0,3 puntu.
- f) EHUren edota beste unibertsitateen literatura eta euskal kultura masterra izateagatik: 0,2 puntu.
- g) UNEDen sakontze-agiria izateagatik: 0,2 puntu.
- h) Hizkuntzalaritza- eta itzulpengintza-agiriak izateagatik: 0,1 puntu.

universidades públicas (HABE, UPV, UNED, UVV, IVAP...)

- a) por cada curso de entre 10 y 20 horas: 0,2 puntos.
- b) por cada curso de entre 20 y 50 horas: 0,4 puntos.
- c) por cada curso de duración superior a 50 horas: 0,6 puntos.
- d) por cada curso sin especificar su duración: 0,1 puntos.

Cursos impartidos en instituciones o universidades públicas (HABE, UPV, UNED, UVV, IVAP...)

- a) por cada curso de entre 10 y 20 horas: puntos. 0,4 puntos.
- b) por cada curso de entre 20 y 50 horas: 0,8 puntos.
- c) por cada curso de duración superior a 50 horas: 1,2 punto.
- d) por cada curso sin especificar su duración: 0,2 puntos.

Otros títulos:

- a) Certificado de curso de capacitación del nivel C2 emitido por HABE: 3 puntos.
- b) Certificado de euskera vizcaíno de la UPV: 0,2 puntos.
- c) 5º nivel del instituto Labayru: 0,2 puntos.
- d) 4º nivel del instituto Labayru: 0,1 puntos.
- e) Máster de traducción o de lingüística de la UPV o de otra universidad: 0,3 puntos.
- f) Máster de cultura vasca o de literatura de la UPV o de otra universidad: 0,2 puntos.
- g) Certificado de profundización en el conocimiento de euskera (UNED): 0,2 puntos.
- h) Certificados de lingüística y traducción: 0,1 puntos

Aipatutakoez gain ez da beste agiririk edo ikastarorik baloratuko. Azken emaitza atal bakoitzean lortutako emaitzen batuketa izango da. Atal honetan gehienez lor daitekeen puntuazioa 15 puntukoa izango da.

OPOSAKETA-FASEA

Oposaketa-fasean bi ariketa egin beharko dira; ariketa biak egin beharrekoak eta baztertzailak izango dira:

7.6. Lehenengo ariketa:

Gehienez bi ordu eta erdian (2,5 orduan) izangaiak idatziz erantzun beharko dio epaimahaiak planteatuko gaietako bati. Bi gai planteatuko dira eta biak HABEren Curriculumarekin, beronen atalekin eta Curriculumaren beraren garapen-aplikazioarekin lotuta egongo dira. Idazkia gutxienez 400 hitzekoa izango da.

Ariketaren guztizko puntuazioa 20 puntukoa izango da. Gutxienez, 10 puntu beharko dira ariketa gainditzeko.

7.7. Bigarren ariketa:

Izangaiak, alde batetik, lehenengo ariketan egindako idazkiaren ahozko defentsa egin beharko du; eta, bestetik, epaimahaiak planteatutako irakaskuntza-egoerari erantzun beharko dio ahoz. Defentsarako, izangaiak lehenengo ariketan paratutako testua izango dute eskura eta ordu beteko tartea izango dute garatu beharreko egoera prestatzeko. Ahozko ariketa bakoitzak 10 minutu iraungo du

Ariketaren guztizko puntuazioa 20 puntukoa izango da. Gutxienez, 10 puntu beharko dira ariketa gainditzeko.

No se valorarán ningún otro certificado o curso diferente de los aquí recogidos. La puntuación final de esta fase estará constituida por la suma de las puntuaciones obtenidas en cada uno de los apartados. El máximo de puntos que se pueden obtener en esta fase es de 15 puntos

FASE DE OPOSICIÓN

La fase de oposición consistirá en la realización de los siguientes ejercicios, ambos de carácter obligatorio:

7.6. Primer ejercicio:

Consistirá en desarrollar por escrito durante un tiempo máximo de dos horas y media (2,5 h) un escrito que responda a una de las cuestiones planteadas por el tribunal. Se plantearán dos cuestiones y ambas estarán estrechamente relacionadas con el Curriculum de HABE, sus diferentes apartados y el desarrollo del propio Curriculum. El escrito deberá tener 400 palabras como mínimo.

La puntuación total del ejercicio será de 20 puntos, y serán necesarios 10 para superar la prueba.

7.7. Segundo ejercicio:

Consistirá, por una parte, consistirá en hacer la defensa oral del escrito del primer ejercicio; y, por otra parte, se presentará una cuestión docente a desarrollar oralmente. Para la defensa, los aspirantes contarán con el escrito desarrollado en el primer ejercicio y dispondrán de 1 hora de preparación para la cuestión docente a desarrollar. Cada ejercicio oral tendrá una duración de 10 minutos.

La puntuación total del ejercicio será de 20 puntos, y serán necesarios 10 para superar la prueba.

Zortzigarrena — Merituen kalifikazioa , Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.

8.1. Ariketa bakoitzaren emaitzak Udal Euskaltegiaren Iragarki Taulan zein Udaleko web-orrian argitaratuko dira. Behin argitaratuta, gutxienez hiru eguneko epea ezarriko da erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziook Epaimahaiko presidenteari aurkeztu beharko zaizkio idatziz eta horretarako ezarriko den moduan.

8.2. Epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzari dagokion behin betiko emaitzen ebazpenean, aztertutzat eta erantzuntzat joko dira izangaiek aurkeztutako berrikusteskabide eta erreklamazio guztiak.

8.3. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiak argitaratzen direnean, haien kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, Barakaldoko Euskara Udal Erakundearen Lehendakariari zuzendua, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 7 eguneko epean.

8.4. Ariketa guztiak eta lehiaketa-fasea amaituta, Epaimahaiari aurkeztutako erreklamazio guztiak ebatzita, honek proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntuazioaren arabera, eta ariketa bakoitzean lortutako puntuak adieraziz.

8.5. Izangai batek baino gehiagok puntu

Octava —Calificación de los méritos, propuesta del Tribunal y presentación de documentos.

8.1. Las calificaciones de cada ejercicio se harán públicas en el Tablón Oficial de Anuncios del Euskaltegi Municipal y en la página web del Ayuntamiento de Barakaldo. Tras la publicación se establecerá un plazo mínimo de tres días para la presentación de reclamaciones, las cuales deberán dirigirse a la presidencia del Tribunal por escrito en la forma que al efecto se establezca.

8.2. Todas las solicitudes de revisión y reclamaciones presentadas por las personas aspirantes en el plazo correspondiente se entenderán revisadas y contestadas mediante acuerdo del tribunal calificador por el que se aprueben los resultados definitivos de cada ejercicio.

8.3. Ante las publicaciones de acuerdos definitivos del tribunal las personas aspirantes podrán interponer en el plazo de 7 días naturales, contado a partir del siguiente a su publicación, recurso de alzada ante la Presidenta del Organismo Autónomo Barakaldoko Euskara Udal Erakundea.

8.4. Concluidas la realización de todos los ejercicios y la fase de concurso, resueltas las reclamaciones presentadas ante el Tribunal, éste hará pública la relación de las y los aspirantes por orden de puntuación total alcanzada, con indicación de los puntos obtenidos en cada ejercicio y fase, creándose así una lista en orden de prelación.

8.5. Caso de resultar algún empate en la

kopuru bera lortuz gero, oposaketa-fasean puntu gehiago lortu duenaren alde egingo da; hala ere, berdinketak badirau, irakaskuntza-lanetan eskarmentu handiagoa duenaren alde egingo da. Azkenik, berdinketak balirau, zozketa bidez hartuko litzateke erabakia.

8.6. Lan-poltsako izenen hurrenkera ezartzean, lehentasuna izango dute, oposaketa-fasean gutxieneko puntuazioa lortuta, 4.HE edo baliokidea egiaztatu dutenek. Jarraian, betiere oposaketa-fasean gutxieneko puntuazioa lortuta, 3.HE edo baliokidea egiaztatu dutenak agertuko dira.

Bederatzigarrena.-Lan-poltsaren funtzionamendua.

9.1. Kontratazio bat egin behar denean, izangaien zerrendara joko da eta zerrenda horretan lehenengo dagoen pertsonari eskainiko zaio lanpostua.

9.2. Zerbitzuak eskaini ahal izateko, lan-poltsara jo behar izango den bakoitzean, izangaien puntuazio-ordenaren arabera egingo dira deiak, hurrengo irizpideei jarraiki:

a) Zerrendan agertzen den pertsonari, gehienez, birritan deituko zaio, gutxienez 2 orduko tarteaz eta gehienez 4 orduko tarteaz, kontratatua izateko prest dagoen ala ez adieraz dezan. Ezezkoa emanaz gero, zerrendako hurrengoari deituko zaio eta honek ere ezezkoa emanaz gero, hurrengoari, harik eta kontratatua izateko prest dagoen izangairen bat aurkitu arte.

suma de puntuaciones, éste se deshará a favor de quien acredite mayor puntuación en la fase de oposición. Si aún así persistiera el empate, se decidirá a favor de quien acredite mayor experiencia en la enseñanza. Finalmente, si persistiera el empate, éste se deshará por sorteo.

8.6. A la hora de fijar el orden de prelación, tendrán preferencia aquellas personas que, habiendo obtenido la puntuación mínima en la fase de oposición, hayan acreditado el PL4 o equivalente. Posteriormente a estos candidatos en el orden de prelación aparecerán aquellas personas que, habiendo obtenido la puntuación mínima en la fase de oposición, hayan certificado el PL3 o equivalente.

Novena.-Funcionamiento de la bolsa de trabajo.

9.1. Cuando deba realizarse una contratación se acudirá a la relación de personas candidatas y se ofrecerá el puesto a la primera persona de la lista.

9.2. La oferta para la prestación de servicios requeridos se efectuará por orden riguroso de puntuación de los y las aspirantes seleccionados/as, conforme a los siguientes criterios:

a) El llamamiento se realizará mediante un máximo de dos comunicaciones telefónicas, con un intervalo de 2 horas, como mínimo, y 4 horas, como máximo, a la primera persona de la lista por cada contrato a realizar para que muestre su conformidad o no con la contratación. Si no mostrara su conformidad, se realizará una nueva comunicación con la siguiente candidatura y así sucesivamente, hasta que algún

candidato/candidata mostrara su conformidad para la contratación.

b) Zerbitzuak une horretan aplikagarria den araudiaren arabera zehaztuko dira.

b) Los servicios se concertarán con sujeción a la normativa que resulte aplicable en cada momento.

c) Zerbitzu-emate horrek iraungo du betebeharra sortu duen arrazoiak dirauen bitartean. Arrazoi hori desagertzean, indargabetuta geratuko da.

c) La duración de la prestación será por el periodo de tiempo preciso en que se mantenga la causa que lo motivó, quedando automáticamente sin efecto una vez desaparezca la misma.

d) Izangaietako batek eskaintza horri ezezkua emanaz gero, zerrenda duen postua galduko du, baldin eta ezezkua arrazoitzen ez badu. Ezezkoaren zurritze hori 24 ordu pasatu aurretik egin beharko da, eta helburu horretarako posta elektronikoa erabiliko da. Posta-elektronikoaren bidez dagokion dokumentazioa igorriko du eta ezezkua zurritu beharko du. Egoera horretan dagoen izangaiari ez zaio berriro deituko, harik eta erakundeari adierazi arte zerbitzuak onartzeko prest dagoela. Adieraztean, zegoen postuan jarraituko du lan-poltsan.

d) En el supuesto de que una o un aspirante no atendiera en ese momento a la prestación del servicio que se le requiera, perderá su puesto en la lista. Si su negativa fuera justificada, deberá alegar los motivos en el plazo máximo de 24 horas, presentando la documentación justificativa correspondiente por correo electrónico, acreditando la razón. Mientras el o la aspirante no comunique por correo electrónico que ha cesado el hecho que motivó la renuncia, permanecerá fuera de la bolsa pero sin perder su puesto y podrá solicitar estar en activo en la bolsa.

9.3. Izangaien zerrenda, gehienez ere, bi urtez erabili ahal izango da edo, bestela, beste bat egin arte.

9.3. La lista de los aspirantes tendrá una validez máxima de dos años o, en su defecto, hasta la creación de una nueva.